

ROMULO ETA REMO

Kondairak dioenez, baziren bi anaia biki: Romulo eta Remo.

Eneas heroi ospetsuaren semeak ziren, eta Marte jainkoa haur haien arbasoa omen zen.

Jaioberritan, umeen osaba batek saskitxo batean sartu eta Tiber ibaian utzi omen zituen, urak eraman zituan.

Baina saskitxo hori Palatino mendi-oineko hondartza batean geratu zen, eta otseme batek

berotu zituen hoztuta zeuden umeak eta titia eman zien. Gero, Faustulo artzainak jaso eta hezi zituen.

Helduak egin zirenean, hiri berri bat sortu zuten bien artean, gero Erroma izango zena. Baina bi anaia bikiak hiri horretako agintari izan nahi zuten, asko haserretu ziren eta Romulok, Remo anaia, hil egin zuen.



ULERMEN GALDERAK

Zelan deitzen ziren kondaira honetako anai bikiak?

Noren semeak ziren?

Zer egin zuen euren osaba batek?

Nork aurkitu zuen saskitxoa Palatino hondartzan?

Zer egin zuen otsemeak umetxo biak aurkitzerakoan?



Titia eman zien

Anaiekin jolastu egin zuen

Jan egin zituen

Han ikusi zituen eta joan egin zen

Helduak egin zirenean hiri bat sortu zuten. Zein da hiri horren izena? _____

Zergatik hil zuen Romulok Remo anaia?
